- Las máquinas que se utilicen serán, en general, silenciosas.
- Se dotará de carros de transporte a cada uno de los centros que se considere necesario.
- Se pondrá a disposición del servicio cualquier otra maquinaria que se considere necesaria para la correcta ejecución del trabajo.

**9.- RETIRADA DE BASURAS**

La gestión de los residuos en el contrato de limpieza abarcará: los residuos generados por el servicio de limpieza y los residuos generados por los ocupantes del edificio. Dichos residuos se retirarán con la frecuencia necesaria para evitar su acumulación.

Respecto a los residuos generados por el propio servicio, la plantilla deberá realizar la separación selectiva de los residuos. La empresa adjudicataria depositará dichos residuos en los contenedores o puntos de basura establecidos en los días y horarios fijados. Además deberán tratar a través de

edukiontzietan edo guneetan utziko ditu hondakinak. Horrez gain, baimendutako kudeatzaileen esku utzi beharko ditu hondakin arriskutsuak, eta beharrezko egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Eraikinaren okupatzaileek sorturiko hondakinak honela jasoko dira:

Kultur etxea, Ibaigain 6ko lokala eta udaletxea:

- Organikoa Uzturre auzoan kokatutako konpostagunean.
- Gainontzekoa, gaika sailkatuta, Ibaigain 6an (Alur ondoan) dagoen gelatxo batean.

Kiroldegia:

- Kiroldegiko arduradunek aterako dituzte hondakinak, gai bakoitza dagokion egunean.

Gainontzeko lokalak:

- Erabiltzaileek aterako dituzte hondakinak, gai bakoitza dagokion egunean.

## 10.- ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA ETA KONTROL SISTEMAK

Esleipendunari dagokio zerbitzuen zuzendaritza, eta korporazioak nahiz udaleko zerbitzu teknikoek emandako agindu eta arauak beteko ditu zorrotz, zuzendaritza, inspekzio eta kontrol arloan dagokien ahalaren erabileran.

Enpresa lizitatzaileak bere eskaintzan proposatuko ditu egoki iritzitako antolakuntza alderdiak. Antolakuntza proposamenaren barnean dispositibo azkar batzuk izan beharko ditu, udalak eskatutako datuak berehala eman ahal izateko, honek zerbitzuaren gaineko kontrola egoki eraman dezan.

Esleipenduna behartuta dago udaleko zerbitzu teknikoak eskatzen dizkion txosten eta azterlan guztiak egiteko, beti ere kontratu honen zerbitzuarekin lotuta badaude.

Urtero, enpresa esleipendunak eta udalak egin daitezkeen aldaketak aztertuko dituzte eta urteko egutegia egingo dute.

gestores autorizados los residuos peligrosos, y aportar los certificados oportunos.

Los residuos generados por los ocupantes del edificio se recogerán de la siguiente forma:

Casa de cultura, locales de Ibaigain 6 y ayuntamiento:

- El orgánico en el compostaje ubicado en el barrio Uzturre
- El resto, recogido por separado, se depositará en un cuarto existente en Ibaigain 6, junto al local de Alur.

Polideportivo:

- Se encargarán los responsables del polideportivo de sacar los residuos, recogidos por separado, cada día el que corresponda.

Resto de locales:

- Los usuarios de los locales se encargarán de sacar los residuos, recogidos por separado, cada día el que corresponda.

## 10.- ORGANIZACIÓN Y SISTEMAS DE CONTROL DEL SERVICIO

Corresponde al adjudicatario la dirección de los servicios, debiéndose ajustar estrictamente a las órdenes o directrices que en el ejercicio de los poderes de Dirección, Inspección y Control, le señale tanto la Corporación, como los Servicios Técnicos Municipales.

La empresa licitadora propondrá en sus ofertas los aspectos de organización que considere oportunos. Dentro de la organización propuesta deberán prever unos dispositivos muy ágiles que permitan proporcionar a tiempo todos los datos requeridos por el Ayuntamiento para llevar a cabo satisfactoriamente los controles que crea convenientes sobre este servicio.

El adjudicatario queda obligado a preparar cuantos informes y estudio relacionados con los distintos servicios de esta contrata le sean ordenados por los Servicios Técnicos Municipales.

Anualmente, la empresa adjudicataria y el Ayuntamiento procederán a analizar las posibles variaciones que sea conveniente realizar, y confeccionar el calendario de trabajo anual.

Kontratistak udalari aurkeztu beharko dio garbiketa orokorren egutegia (kristalak, distira ateratzekoak, azulejuak…).

Fakturak hilero egingo dira, eraikin bakoitzeko bat, hileko orduak adieraziz, pleguan ezarritako maiztasunarekin bat etorriko direnak. Urtean bitan garbiketa berezi modura egiten diren kristalen, markoen, errezelen garbiketa, distirazleak…ez dira aparte ordainduko, ordu/prezioan sartuta daude.

El contratista deberá presentar al Ayuntamiento calendario de limpiezas generales (cristales, abrillantados, azulejos, etc).

Las facturas se realizarán mensualmente, indicando las horas mensuales por cada edificio, que coincidirán con las frecuencias establecidas en el pliego. Las limpiezas de cristales, cortinas, abrillantados, etc que se realicen como limpieza especial una o dos veces al año según pliego, no se abonarán aparte, están incluidas en el precio/hora.

## 4.5 EMETERIO ARRESEKO HARMAILETARAKO EGURRAREN HORNIDURA ETA MUNTAIAREN ESLEIPENA

Emeterio Arreseko harmailetako egurra oso gaizki eta arriskutsua zegoela eta, kendu egin da. Harmaila osoak egurrez estali beharrean morteroarekin konpondu eta estali dira eta orain eserlekuak jartzea falta da. 45 cm inguru zabalera izango duten eserleku jarraiak jarriko dira harmaila bakoitzean.

3 enpresei eskatu zaie aurrekontua eta honakoak dira aurkeztutako eskaintzak:

- Atari aroztegia……62 ml x 57,2 €/ml…..3.543,30 € + %21 BEZ……4.287,39 €
- Apatta aroztegia…………………………..3.986,00 € + %21 BEZ……4.823,06 €
- Iturrioz aroztegia……………………………………Ez du eskaintzarik aurkeztu

2016ko uztailaren 18ko Obra eta Zerbitzu Batzorderaren irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

LEHENENGOA: Onartzea Emeterio Arrese harmailetarako egurrezko eserleku jarraien hornidura eta muntaia ATARI aroztegi enpresari esleitzea, 4.287,39 eurotan (BEZa barne)

BIGARRENGOA: Agintzea Kontuhartzailtza sailari ordainketa 1 0000.210.450.00.00 2016 partidatik burutu dezan

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri Atari Aroztegiari, Apatta Aroztegiari eta Iturrioz Aroztegiari.

LAUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzailetza sailari

**4.6 IDOIAGA 3AN AUTOAK KONPONTZEKO ETA ERAKUSKETARAKO TAILERRARENTZAT JARDUERA SAILKATUAREN IREKIERA BAIMENA ONARTZEA**

Irekiera baimenaren eskaera egin du Pedro Mª Urquízar Peñagarikano Jaunak, Idoiaga kaleko 3 zk.an ibilgailuen konponketarako eta autoen salmentarako tailerra ezartzeko.

2015eko azaroaren 13an Gobernu Batzordearen erabakiz honako baimenak eman zitzaizkion:

- Tailerra ezartzeko jarduera klasifikatuaren lizentzia Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuko Ingurumen sailak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeko baldintzapean.
- Lokalean obrak egiteko lizentzia.
- Espaloitik 7m luzerako sarbide berria egiteko baimena.

Jarduera lizentzian eskatutako agiri guztiak aurkeztu ditu:

- Aldez aurreko Komunikazioaren inprimakia eta erantzunkizunpeko adierazpena.
- Teknikari gaituak emandako ziurtagiria egiaztatzen duena jarduerak edota instalazioak bat datozela aurkeztutako eraikitze-proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin, eta ezarri zaizkion neurri zuzentzaileekin.
- “ai ingeniería y consultoría”k egindako eta Jorge Arbella Arellano teknikariak sinatutako entsegu akustikoaren txostena aurkeztu du. Bertan ikusten da lokalak araudiak eskatzen duen isolamendu akustikoa betetzen duela.
- Instalakuntza elektrikoaren boletina, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

- Barruko ur instalakuntzen proba ziurtagiria, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetua.
- Aireztapen eta estrakzio instalakuntzen proba ziurtagiria, instalatzaileak izenpetua.
- IAE n alta.
- Suteen aurkako babes sistemak mantentzeko kontratuaren kopia.

Lokala ikuskatu ondoren honako ikusi da:

- Proiektuaren arabera A gunean 4 aparkaleku daude, konpontzeko edo konponduta dauden autoak uzteko. Gune horretan bulego bat egin da, aluminiozko tabikeen bidez. Orain ez da lekua ikusten aipatutako autoak uzteko.
- Sarreratik 5 m-ra detektagailuarekin dabilen ate automatiko bat jarri da. Autoa gerturatzen denean irekitzen da eta berehala ixten da. Hau ez da proiektuan azaltzen.
- Ke beltzak ateratzeko instalazioa egin da. Sarreran dagoen shunt batera konektatu da. Hau ez da proiektuan azaltzen.
- Foru Aldundiko ingurumen sailak ezarritako baldintzetako bat ur-zikinen hustubidearen aurretik dekantagailua duen hidrokarburo eta koipe bereizgailua jartzea zen. Ez dago egina.
- Larrialdiko irteeren seinalizazioa falta da. Euskal Herria 4-ra ematen duen atean “Irteerearik gabe” azaltzen duen seinalizazioa falta da.

Arkitekto teknikoaren txostena ikusita, eta 2016ko uztailaren 18ko Obra eta Zerbitzu Batzorderaren irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

LEHENENGOA: Idoiaga 3an dagoen behe oineko lokalean 2. kategoriako industria jarduera, hau da, mekanika-espezialitateko motorrerako ibilgailuen eta neumatikoen konponketarako tailerra ezartzeko jarduera klasifikatuaren irekiera baimena ematea baldin eta honako baldintzak betetzen badira:

1.- Dekantagailua duen hidrokarburo eta koipe bereizgailua jarri beharko da ur-zikinen hustubidearen aurretik Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuko Ingurumen sailak ezarritakoari jarraiki.

2.-Larrialdiko irteeren seinalizazioa falta da. Euskal Herria 4-ra ematen duen atean "Irteerearik gabe" azaltzen duen seinalizazioa falta da. Seinalizazio horiek jarri beharko dira.

3.- Proiektuarekiko dauden aldaketak azalduko dira plano batean. Gutxienez honakoak aurkeztuko dira:

- Aluminiozko itxiturak.
- Sarrerako ate automatikoa
- Ke beltzak ateratzeko egindako instalazioa.
- Ur-zikinen hustubidearen aurretik dekantagailua duen hidrokarburo eta koipe bereizgailua, eta ur-zikinen hustubidea kanpoko kolektorearekin elkartu arte.

4.- Ke beltzen hustuketa xede horretarako bakarrik izango den kebide batetik egingo da. Ziurtagiri teknikoa aurkeztu beharko da hori horrela dela egiaztatzen duena.

5.- Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuko Ingurumen sailak ezarritako neurri zuzentzaileak beteko dira. Halaber, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei oro har aplikarrigarri zaizkien arau teknikoak onesten dituen 171/1985 Dekretuak, ekainaren 11koak, ezarritako baldintzak beteko dira:

a.- Lokala aireztatzeak ez die auzokoei usain, zarata edo bibrazioengatik eragozpenik sortuko.

b.- Orokorrean ez da zarata edo bibrazioengatik eragozpenik jasanaraziko.

c.- Komunetakoez besteko isurpiderik egotekotan hondakinentzako kanporako isurpidea baino lehen, solidoak eta koipeentzako aska bat jarriko da.

d.- Dekantagailua duen hidrokarburo eta koipe bereizgailua jarri beharko da ur-zikinen hustubidearen aurretik.

e.- Koipeztaketa edo olio-aldaketak egin behar direnean, erabilitako olioak ontzitan bildu beharko dira. Horiek isurtzea debekatuta dago.

f.- Makinak lurrean lotzea dardaren kontrako elementuen bidez egingo da, dardarizua eraikinaren egiturara eta hurbileko lokal eta etxebizitzetara iristea eragotziz.

g.- Hurbileneko etxebizitzetako logela, egongela eta sukalde barnean ez da gaindituko 40 eta 30 dB(A)ko balioa, hots maila jarraitu baliokidean neurtuta (Leg 60-s), ez eta 45

eta 35 dB(A)ko gehieneko soinu maila ere, eguna 22.00ak arte eta gaua 8.00ak arte jota.

h.- Debekatuta dago autoen pintaketa egitea.

i.- Hondakin arriskutsuak (erabilitako koipeak, frenoen likidoak, bateriak, isuriak dituen zerrautsak, zapi zikinak…) banatuta eta ontzi egokietan jasoko dira, dagozkien etiketak jarrita, jasotzaile baimenduak eraman arte. Halaber, hondakin industrial geldoak, baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

j.- Debekatuta dago edozein motatako lana kanpoan egitea, baita konpontzeko edo konponduta dauden ibilgailuak bide publikoan aparkatzea ere.

5.- Konponketa lanak kanpoko atea itxita egingo dira zaratengatik eragozpenak ez sortzeko.

6.- Espaloietan barrena finketara ibilgailuak sartu-irtetzeko urteko tasa ordaindu beharko da 7 metroko sarreragatik.

7.- Komunikazioa eginda dagoela, komunikazioa aurkeztu den egunetik bertatik has daiteke gauzatzen jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.- Jarduera hastea jardueraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean egingo da, erabat.

9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 109. artikuluarean a) atalak dio oso arau-hauste larria dela ez betetzea ingurumen-lizentzietan ezarritako baldintzak.

10.- Udalei dagokie jarduera sailkatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko eskumena. Tokian tokiko alkateak ahalmena du legez kanpoko jarduerak bertan behera utzi edo ixteko, lizentziak deuseztatzeko eta legez finkatuta dauden zehapenak ezartzeko eskatutako baldintzak bete ezean.

11.- Eskatutako baldintzak betetzeko eta dokumentazioa aurkezteko 6 hilabeteko epea ematen da.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Pedro Mª Urquízar Peñagarikano jaunari

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

**<u>5.-KOMUNIKAZIO GABINETEA KONTRATATZEKO PUBLIZITATE GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ, PLEGUEN ONARPENA</u>**

Ibarrako Udalak komunikazio alorrean dituen beharrak astetzeko Komunikazio Bulego bat kontratatu nahi du. Udalak herritarrekin eta kanpo erlazioetan izan behar duen komunikazioa gauzatu eta suspertzeko asmoz.

Alkateak komunikazio gabinetea kontratatzeko (publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez) plegu administratibo eta teknikoak aurkeztu ditu.

Guztia irakurri eta aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

LEHENENGOA: Onartzea Komunikazio Gabinetea Kontratatzeko Publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez egingo den prozeduraren plegu administratibo eta teknikoak

BIGARRENGOA: Prozedura negoziatuan parte hartuko duten enpresei deialdia igortzea.

## KOMUNIKAZIO GABINETEA KONTRATATZEA PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA.

## BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKO ZEHATZEN AGIRIA

### I.- KONTRATUAREN EDUKIA

**<u>1.- KONTRATUAREN XEDEA</u>**

Ibarrako Udalaren komunikazio alorrean dituen beharrak asetzeko Komunikazio Bulego baten kontratazioa. Zerbitzu honen helburu nagusiena Ibarrako Udalak herritarrekin eta kanpo erlazioetan izan behar duen komunikazioa gauzatu (udalaren aktibitate eta proiektuen berri eman) eta suspertu.

Honako jarduerak burutu beharko dira:

1. KOMUNIKAZIO BIDEEKIN ERLAZIOA

a. Prentsara igorri behar diren komunikatu eta idatziak landu eta hedatu nahiz euskeraz edo gaztelaniaz
b. Komunikabide eta Udalaren arteko bitartekari lanak gauzatu; behar dituzten informazioak helarazi eta korporazioko partaideekin komunikazioak kudeatu

2. HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA (bi hizkuntzetan: euskara eta gaztelaniaz)
   a. Ibarrako Web orrialdera igo behar den informazioa berrikusi eta zuzendu
   b. Udalak Twitter eta Facebook (horrelako orrialdeetan) dituen profilak kudeatu

3. ZERBITZUAREN BALDINTZAK
   a. Zerbitzua Ibarrako Udalean eman beharko da
   b. Astero 12 ordu egin beharko dira. Gutxienez 6 ordu presentzialak izango dira (Ibarrako Udalean lan egin beharrekoak).

**2.- KONTRATUAREN IRAUPENA**

Prestazioa eskaintzeko guztizko epea BI URTEKOA izango da. Beste bi urte berritzeko aukerarekin, urtez urte.

**3.- KONTRATUAREN IZAERA ETA MOTA, ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Kontratuaren xedea kontuan hartuz, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina- SPKLTB- onartzen duenak 10 eta 19 art.etan xedaturikoari jarraiki, administrazioko zerbitzu kontratu bat da.

Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleituko da, SPKLko 138, 142 eta 169. artikuluetan adierazi eta arautzen den bezala.

Kontratua arautuko duen legeria:

a) Plegu honetan eta plegu teknikoan jasotako baldintzak.

b) Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena, aurrerantzean SPKLTB.

c) Indargabetu gabeko Urriaren 12ko 1098/2001eko Errege Dekretua, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

d) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa partzialki garatzen duena.

e) Administrazio kontratazioa arautzen duen estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko foru edo tokiko aplikagarri den bestelako xedapenak.

f) Kontratu honi zuzenean nahiz zeharka eragin liezaiokeen edozein mailako beste xedapen bat.

Aurkakotasuna balego Plegu ekonomiko-administratibo honen eta kontratazio espedientean jasotako gainerako agirien artean, plegu honek aginduko du, alderdi teknikoetan izan ezik, horietan Baldintza Teknikoen Pleguak aginduko baitu.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa baliatuko da kontratua dela-eta sor daitezkeen auzietarako.

**4.- KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa gehienez**, 58.000 € izango da BEZ barne (4 urteak kontutan hartuz)**. Eskatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Prezio horretan sartuta daude zerbitzua aurrera eramateko sortzen diren gastu guztiak (beharrezkoa den pertsonalaren soldatak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio kostuak, langileen dietak, inbentariagarria ez den materiala..., hau da, udalak bere gain plegu honetan espresuki hartzen ez dituen gastu guztiak.)

Adjudikazio-hartzailea BEZa ordaintzetik salbuetsita baldin badago, behar bezala ziurtatu beharko du eta zenbateko hori ez da eskaintzan sartuko.

**5.- FINANTZABIDEA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da udal aurrekontuan.

**6.- ORDAINTZEKO MODUA**

Ordainketak prozedura honi jarraituz egingo dira:

Ordainketa, urteko prezioaren 14.500 euro (BEZ barne) HILERO aipatu lan horiek eginda daudenean ordainduko da, uztailaren 15erako, beti ere esleipendunak fakturak edo aurkeztuz gero.

**7.- ESKAINTZAK ESKATZEA**

7.1.- Enpresa lizitatzaileak.- SPKLko 178. artikuluari jarraituz, Ibarrako Udalak eskaintzak eskatu ahalko dizkie kontratu hori egiteko gai diren hiru enpresari edo gehiagori. Eragin horretarako, gai joko dira jarduteko gaitasun erabatekoa duten pertsona natural edo juridiko espainiarrak edo atzerritarrak, baldin

eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta ez badute SPKLko 60. artikuluan jasotako debekuetako bakar bat ere.

Eskaintzaren bat aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela agiri honetako klausulak, eta adierazpen erantzulea ere bada, Administrazioarekin kontratua egiteko behar diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adierazten duena.

7.2- Eskaintzak.- Enpresaburuei, ahal den guztietan, eskaerak idatziz eskatuko dizkie kontratazio organoak.

**8.- BERMEAK**

Behin-behineko bermea

Ez dago.

Behin betiko bermea

Eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak, ezarritako betebeharrak betetze aldera, behin betiko bermea ezarriko du, hain zuzen, adjudikazio zenbatekoaren %5ari dagokiona, BEZ sartu gabe.

Berme hori ezartzeko epea bost egunekoa izango da, behin-behineko adjudikazioaren iragarkia egiten denetik kontatzen hasita eta Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 96.1 art.an ezarritako edozein modutan ezar daiteke.

Bermea itzultzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 102 art.an ezarritako moduren batean egingo da, behin berme epea igarota eta adjudikatzaileak kontratu betebehar guztiak bete ondoren.

**9. KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

EAEko hizkuntza ofizialei dagokionean ondoren betebeharrak zehazten dira:

9.1. Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoren.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

9.2. Erabilera herritarrekin:

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgoragailutik, bileretan…) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatuko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

9.3. Erabilera administrazioarekin:

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak…) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLTaren 118.2. artikuluaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak kontratua etetea eragin dezake, 223. F) artikuluan adierazi bezala.

**10.- KONTRATAZIO ORGANOA**

Zerbitzu honen kontratazioa Alkatetzak esleituko du, dekretu bitartez.

## II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

**11.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA**

Kontratu hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 169 eta 174. artikuluetan ezarritakoaren arabera, lege horretako 174 e) artikuluan agertzen den egoera bera baita.

Irizpide hauexek izango dira kontratua adjudikatzeko oinarri, garrantziaren eta puntuazioaren arabera ordenatuta:

**I.- Eskaintza ekonomikoa:** **(51 puntu).**

A:- Eskaintza ekonomiko hoberenari 51 puntu emango zaizkio eta beste proposamen guztiei honako formula honen arabera emango zaizkie puntuak:

X= (esleipenaren prezioa/ Y) / (esleipenaren prezioa / Z) * 51

X= lorturiko emaitza
Y= baloratu behar den eskaintzaren prezioa
Z= eskaintza onena

B: :- Eskaintza ekonomiko hoberenari emango zaio puntuazio handiena eta zero puntu lizitazio prezioari. Gainerako eskaintzen puntuazioa izango da biderketa honen emaitza: eskaintza ekonomiko baxuenaren eta lizitatzailearen eskaintzaren arteko kozientea bider irizpideari aplikagarri zaizkion puntuak, hau da,

Ob x Z
OI

Ob da eskaintza ekonomiko baxuena eta OI lizitatzailearen eskaintza; Z aplikagarri diren gehienezko puntuak irizpidean.

**II.- Txosten teknikoa. (40 puntu)**

a.- Marko teorikoa eta proiektuaren helburuak. Aurkezten duten proiektua eta Ibarrako Udalaren helburuen arteko lotura. Ibarrako herriaren espirituarkin bat datorren komunikazio proiektua

b.- Lan-metodologia: 1. Helburuen, prozesuen eta emaitzen ebaluazio adierazleak. Ebaluazio prozedurak eta euskarriak. 2. Komunikatzaile eta udalaren arteko koordinazioa eta formazio proposamena. 3. Udalareriko eta herriko eragileekiko koordinazio proposamena 4. Herritarren parte-hartzea sustatzeko proposamena.
c. Zeharkako lerroak jorratzeko kalitatea eta gaurkotasuna. 1. Generoen arteko elkarbizitza bermatzeko proposamena. 2. Euskararen erabilera bermatzeko proposamena. 3. Bizikidetza eta aniztasuna bermatzeko proposamena.

**III.- Hobekuntzak (10 puntu)**

Originaltasuna.
Segurtasun juridiko eta pribatutasuna babestea

Udalaren eta herriaren, argazki eta bideoen kudeaketarako proposamena

Aipatutako irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatuko da parte-hartzaileekin.

## 12.- KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan, pertsona natural edo juridikoek parte hartu ahalko dute, baldin eta ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 60. artikuluan ezartzen dituen ezintasun edo bateraezintasunetako bat ere ez badute. Kaudimena 1. klausulako e) eta f) letretan ezarritako bideen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Kontratua beren kabuz egin ahal izango dute, edo beste pertsona batek ordezkatuta, horretarako emandako ahalmenaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa horko kideren batek parte hartu badu, horretarako ahalmena duela egiaztatu beharko du, agirien bidez. Hala, kasu batean nola bestean, ordezkariari ere eragingo diote lehen adierazitako kontratatzeko ezintasunek.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea eskatuko da.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea .

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

**13. ESKAINTZAK AURKEZTEA ETA PARTE-HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA**

Prozedura honetan parte hartzeko proposamenak ezarritako epean aurkeztu beharko dira.

Proposamen horiek Ibarrako Udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztuko dira, San Bartolome Plaza 2 zk.an, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00ak arte.

Epez kanpo aurkezturiko proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta jasota gelditu postetxean aurkeztu zirela epea amaitu aurretik, ez bazaio kontratazio organoari bidaltzen telex edo telegrama bidez eskaera egin zeneko egunaren egiaztagiria, postaz bidali zeneko egunarena.

Kontratazio honetako espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa Administrazio honetako Idazkaritzan aztertu ahalko da, 09:00etatik 13:30era, lanegun guztietan, eskaintzak aurkezteko epe osoan.

Eskaintza horiek adierazitako toki eta ordu berean aurkeztuko dira, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azal horretan, honako hau idatziko da: **"KOMUNIKAZIO GABINETEA KONTRATATZEA PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ ADJUDIKATZEKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKAINTZA"**. Dokumentu hauek izango ditu barruan:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunderen baten ordezkari gisa jarduten bada, notario-ahalordea ere aurkeztu beharko da.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, Merkatu Erregistroan behar bezala inskribatutako eratze edo aldatze eskritura aurkeztu beharko da, halakorik bada, eta identifikazio fiskaleko zenbakia eman beharko da, aplikatzekoa den merkatu legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Hala ez bada, eskritura edo eratze dokumentu bidez, estatutu edo sortze egintza bidez egiaztatuko da jarduteko ahalmena. Agiri horiek, beharrezkoa izanez gero, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira eta jardueraren arauak agertuko dira bertan. Espainiarrak ez baina Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuak badira, kokatuta dauden estatuko legediaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztu, Europar Batasunean aplikatzekoak diren xedapenen arabera.

c) Berariazko adierazpen erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko 60. artikuluan, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua (I ERANSKINA), agertzen diren kontratatzeko debekuetako bakar bat ere ez dutela adierazten duena. Halaber, espresuki adieraziko da indarrean dauden xedapenetan ezarritako zerga betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkatela, azken bi egoera horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu ez badira.

d) JEZn alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, zehazki kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emanda daudela, baldin eta urte horretakoa bada ziurtagiria, edo JEZren azken ordainagiria, beste kasu guztietan; bi kasuetan, zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaintzaileek zerga horren matrikulan baja ez dutela eman dioena.

e) Kaudimen ekonomiko finantzarioaren egiaztagiriak:

Kaudimen ekonomiko finantzarioa egiaztatuko da enpresaren urteko kontuen bidez edo haien laburpen bidez, gutxienez bi erakunde finantzarioen txostenekin batera.

f) Kaudimen tekniko edo profesionala:

- Kaudimen tekniko edo profesionala, SPKLTBaren 78 art.ak ezarritako bitartekoren baten bidez.

Hautatuak izateko, enpresaburuek zerbitzuen kontratuak ematen gutxienez bi urteko esperientzia dutela egiaztatu beharko dute. Berariaz ohartarazten da hori egiaztatzeko kontratua eman den Udalaren ziurtagiria aurkeztu beharko dela.

- kontratu honetako koordinazio lanak egingo dituenak Kazetaritzan lizentziatua edo Ikus entzuneko komunikazioan lizentziatua eta gabinete bulegoetan gutxienik 2 urteko esperientzia izan beharko du. Koordinazio lanetan arituko denaren argiri horien kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira parte hartzeko eskaerarekin.

- Kaudimena frogatzeko, gainera, prozeduran parte hartzera onartutako lizitatzaileek haien proposamenetan zehaztutako baliabide materialekin eta giza baliabideekin osatuko da. Hori kontratatuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPTLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da 223 f) artikuluan adierazi bezala.

- Horrela, esleipendunak, kontratua burutuko duten langileen izen-abizenak eta horien lanbide-prestakuntza adierazi beharko da.

- Langileen %100 nahitaez egiaztatu beharko dute administrazioko 3. Hizkuntza eskakizuna, dagokion ziurtagiria aurkeztuta, 263/1998 Dekretuari jarraituz. Beraz, hezkuntzako 2. Hizkuntza eskakizuna, EGA edo administrazioko 3. Hizkuntza eskakizunaren pareko beste titulu batzuk aurkeztu ahalko dira.

- Lan honetan arituko diren orok, ziurtatu beharko du ez dela sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka egindako delituengatik kondenatua izan epai irmoarekin. Horretarako, Sexu delitugileen erregistroko Zentralaren ziurtagiria ekarri beharko da (uztailaren 28ko, 26/2015 legeak egindako, adingabearen babes juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluaren aldaketa).

- Zerbitzua emango duen langilearen identifikazioa, eta hala badagokio hizkuntz gaitasunaren egiaztatzea.

g) Baldin eta hainbat enpresaburuk enpresen aldi baterako elkarte gisa parte hartzen badute lehiaketan, elkarte hori osatzen duten guztiek egiaztatu beharko dute jarduteko ahalmena eta kaudimena badutela, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta adjudikaziodun suertatuz gero aldi baterako elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa agertu beharko dute. Halaber, aldi baterako elkarte horretako kide bakoitzak xedearen zein zati egingo duen adieraziko da eskaintzan, guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

h) Atzerriko enpresek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jarriko direla dioen adierazpena aurkeztu beharko dute, zuzenean edo zeharka sor daitezkeen kontratuaren gorabehera guztietarako, eta hala behar izanez gero eskaintzaileari dagokion jurisdikzio foruari uko egingo diotela adierazi beharko dute.

i) Eskaintza baloratzeko lagungarri gerta daitezkeen agiriak, agiri honetako 12. atalean adierazitakoaren arabera.

j) Eskaintza ekonomikoa, eredu honetara egokitua:

Jauna/andrea:……………………………………………………………………………………………………………….
PK:..............................NAN:...................................Telefonoa:...............................Helbide elektronikoa:.......................................................

Ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmen osoz, bere izenean edo ……………………………. ren ordezkari gisa (helbidea:…………………………….
PK:....................; telefonoa:...................................... eta NAN edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa bada):........................................), ........................................................................................ prozedura negoziatu bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso dudalarik, hau ..............adierazten dut

1) Konpromisoa hartzen dudala kontratua ......................... euroan betetzeko (................. €, %.....(e)ko BEZarenak), .............................. epean. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak daude sartuta, edozein arlotako zerga, gastu, tasa eta arielak, eta kontratistaren etekin industriala barne.

2) Ezagutzen ditudala klausula administratibo berezien agiria, baldintza teknikoen agiria eta kontratua arautuko duten gainerako dokumentuak, eta espresuki onartzen ditudala eta guztiari men egiten diodala.

3) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen dituela indarrean dagoen araudiak irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak.

……………………-(e)an, 20.....ko …………………… -(a)ren ………..(e)(a)n.

Sinadura

Halaber, aurreko a), b) eta e) letretan adierazitako egoerak Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edota Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahalko dira, SPKLko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, ziurtagiri horrekin batera eskaintzailearen adierazpen erantzule bat aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan, ziurtagirian agertzen diren egoerak ez direla aldatu adierazi beharko da.

Aurkeztutako agiriak jatorrizkoak edo Administrazioak nahiz notario batek konpultsatutako edo benetakotzat jotako kopiak izan ahalko dira.

Testu Bateginaren 178.2 artikuluari jarraiki, Udalak negoziatu beharreko eskaintzak murriztu ditzake baldintza plegu honetako irizpideak jarraituta.

Negoziazioa amaituta, haren ondorioz iritzia aldatu duten parte-hartzaileek azken eskaintza bidali beharko dute, ekonomikoki abantailatsuena zer eskaintza den ikusi eta horren arabera eskaintza ekonomiko hoberena hautatzeko.

## 14.- ADJUDIKAZIOA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

Egindako eta amaitutako eskaintzak kontuan hartuta eta, halakorik izan bada, parte-hartzaileekin egindako negoziazioak Kontratazio Mahaiak espedientea aztertuko du, eta adjudikazio proposamena igorriko dio kontratazio organoari.

Kontratazio organoak, neurriz kanpoko edo ez normaltzat joak izan ez diren proposamenak beherazko ordenaz sailkatuko ditu.

Kontratazio organoak, eskaintza ekonomikorik onena egin duen eskaintzaileari, hamar lanegunetako epean, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik hasita, ondorengo ziurtagiriak aurkeztea eskatuko dio:

a) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

b) Kontratua gauzatzeko agindutako baliabideak benetan badituela.

c) Bidezkoa den behin betiko bermea eratzea.

Eskakizun hori adierazitako epean betetzen ez bada, eskaintzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta hurrengo eskaintzaileari eskatuko zaizkio agiri horiek, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraituta.

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta hamar egun baliodun igaro baino lehen adjudikatuko du kontratua.

Eskaintza ezingo da hutsik utzi baldintza pleguan ezarritako irizpideekin bat datorren eskaintza edo proposamenen bat egonez gero.

Adjudikazioa arrazoitua izango da eta hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie.

**15.- KONTRATUA FORMALIZATZEA**

Kontratua agiri administratibo baten bidez formalizatuko da, gehienez ere adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen. Agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratistak eskatu ahalko du kontratuaren eskritura publikoa egitea. Hala bada, berak ordainduko ditu gastuak .

Kontratua formalizatzen denean perfekzionatuko da.

**16.- KONTRATUA GAUZATZEA**

Kontratua kontratistaren gain eta galorde gauzatuko da, eta ez da azpikontratataziorik onartuko.

Kontratua agiri honetako klausulen arabera beteko da, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz baliatuko du ahalmen hori.

Baldin eta kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotzi ahal zaizkien ekintzengatik edo haiek egin beharreko eginbeharrak ez egiteagatik kontratua ondo ez betetzeko arriskua badago, Administrazioak egoki iritzitako neurriak hartzea exijitu ahalko du, kontratua ondo gauza dadin.

**17.- KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK**

Kontratistak lan arloko lege xedapenak, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun betebeharrak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du erantzukizunik izango kontratistak betebehar horiek betetzen ez baditu.

**18.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEAN HIRUGARREN BATZUEI EGINDAKO KALTEEI DAGOKIENEZ**

Kontratista izango da kontratua gauzatzeko egin behar diren eragiketen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, SPKLko 214 eta 305 artikuluen arabera.

Berme horrek estaliko ditu kontratuari loturiko arriskuak eta bereziki, hirugarren batzuei egindako kalteengatiko erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), bai esleipendunaren, bai langileen eta mendekoen egintzen ondorioz sorturiko kalteak, tresnerian izandakoak eta kontratu honen helburu den zerbitzua ematerakoan egindako lanengatik sorturiko kalteak.

**19.- KONTRATUA ALDATZEA**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 219. artikuluarekin bat etorriz, administrazio kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahalko da, I Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta eran, eta 211. artikuluan araututako prozedurarekin bat etorriz. Kasu horietan, kontratazio organoak adostutako aldaketak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

**20.- KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI JARRI AHAL ZAIZKION ZIGORRAK**

A/ KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK

Baldin eta kontratistak berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua garaiz amaitu ez badu, hala epe osoari dagokionez nola, halakorik bada, epe partzialei dagokienez, Administrazioak bi erabaki hauetako bat hartu ahalko du: edo kontratua etetea bermea kenduta, edo egunean eguneko zigorrak jartzea, kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko 0,20ko proportzioan.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuko %5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua azkentzeko edota harekin aurrera jarraitzeko, beste zigor batzuk jarrita.

B/ PRESTAZIOAK PARTZIALKI GAUZATZEA

Kontratistak berari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik kontratuan zehaztutako prestazioetako batzuk bete ez baditu, Administrazioak bi aukera hauek izango ditu: edo kontratua azkentzea, edo zigor bat jartzea, kontratuaren guztizko prezioaren ehuneko 10aren heinekoa.

Prestazioa ondo eman ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren heineko zigorra jarri ahalko du.

Kaudimena 11.e) klausulan ezarritako baliabide material edo pertsonalekin osatzeko betebeharra bete ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren heineko zigorra jarri ahalko du.

Zigor horiek legez ezarritako prozeduraren bidez eratutako bermetik ordainduko dira, eta kontratistak osatu beharko du ondoren bermea, zigorrak ordaintzeko zati bat kendu behar den bakoitzean.

## 21.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu kontratua bukatzeko arrazoi izango dira SPKLko 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak, eta SPKLko 225. eta 309. artikuluetan adierazitako baldintzetan eta ondoreekin.

## 21.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, amaitzea eta horren eraginak erabakitzea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorrak ezarritako mugen barruan eta horko baldintza eta eraginak betez.

## 23.- BALIABIDEEN ARAUBIDEA

Kontratazio honi dagozkion ebazpenek eta izapidezko egintzek, baldin eta azken horiek zuzenean edo zeharka erabakitzen badute gaiaren muinaren gainean, ezartzen badute ezin dela prozedurarekin jarraitu, babesgabezia sortzen badute edo eskubide eta interes legitimoetan kalte konponezina badakarte, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako berraztertzeko errekurtso administratiboa jarrai ahalko da, edo, bestela, administrazioarekiko auzien errekurtso bat jarri ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean araututakoari jarraiki.

Interesdunek gainerako izapidezko egintzen aurka daudela alegatu ahalko dute, prozedura amaitzen duen ebazpenean kontuan har daitezen.

## 24.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio hau dela-eta, norbanakoen datuak erabili behar badira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu bateratuaren hogeita zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legeari eta Lege gori garatzen duen araudiari dagokionean.

EGINBIDEA: Jasota geratzeko baldintza administratiboen plegu hau Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuela

Alkatea Idazkaria

**I ERANSKINA**

**AITORPEN EREDUA**

Nik, ……………………...........jaun/andreak, adinez nagusiak, …………………. NAN zenbakia,…………………..telefono zenbakia eta ………………….. fax zenbakia ditudan eta……………………................................................ helbidea duen honek, honakoa aitortzen dut: herri administrazioarekin kontratatzeko ahala dudala, jarduteko gaitasuna dudala eta SPKLaren Testu Bateginak (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) 60 art.an aurreikusitako inolako ezgaitasun baldintzatzen ez nagoela.

Halaber, aitortzen dut:

- Zerga eta gizarte segurantzetako betebeharretan egunean nagoela, urriaren 12ko APLEOk (1098/2001 ED) 13 eta 14 art.etan aurreikusitako moduan.

- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda nagoela eta ez dudala bajarik eman zerga horren matrikulan.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan "**KOMUNIKAZIO GABINETEAREN KONTRATAZIOA**”n, aitorpen hau sinatzen dut .

…………………., 20…..ko …………………..ren……………n.

Sinadura.

## 6.- GALDE ERREGUAK

### 6.1 EUSKAL HERRIA 18KO GARAJEETAKO KAMAREN ZERBITZUAREN ORDAINKETA ONARTZEA

2016ko apirilaren 13an Ibarrako Udalak kontratu administratibo bat sinatu zuen Detectives Norte & Asociados enpresarkin, Euskal Herria 18ko garajeetan kamara zerbitzu bat jartzeko bertan izan diren lapurretak aztertzeko eta ekiditeko.

Ikusita ezarri den sistema ez dela egokia eta egin duten lana ez duela Ibarrako Udalak eskatzen duena betetzen, kontratua eten da.

2016ko uztailaren 20an, egindako lanen txostena aurkezten da eta honekin batera egindako lanen ordainketa egiteko 2.173/16 faktura aurkezten da (1.815 euro %15eko BEZa barne).

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

LEHENENGOA: Onartzea Detectives Norte & Asociados enpresak aurkeztutako 2.173/16 faktura.

BIGARRENGOA: Agintzea Kontuhartzailetza sailari, 1.815 eurotako kopurua ordaintzea, IBAN ES 90 0239 2030 6930 4004 3390 kontu korrontean.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzailetza sailari

LAUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Detectives Norte & Asociados enpresari honako helbidean: Paseo de los Fueros 1- 2 F 20005 Donostia.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko seiak direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.